KONTRATUAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA

Espediente zk.	**2026-KON_IRE_0006**
Kontratu mota	**Mistoa (hornidura-zerbitzua). Irekia**
Sail arduraduna	**Zerbitzuak**

1. OBJEKTUA

Gabon jaietan herrian zehar eta udal eraikinetan jarriko diren apaingarrien hornidura alokairuan, muntaia-desmuntaia eta mantentzea da.

Horrela, kontratu hau mistotzat hartu behar da, enpresa esleipendunak apaingarrien eta figuren hornidura eta instalazioa egin behar baitu eta elementu horien mantenu lanak gauzatu behar baititu.

2. LOTEETAN EZ BANATZEKO JUSTIFIKAZIOA

Kontratu honen bidez zerbitzu integral bat bermatu nahi da, zerbitzua emateko beharrezkoak diren jarduketa guztiak hornitzaile bakar baten ardurapean egon daitezen. Izan ere, elementu eta ekipamendu desberdinen hornidura, garraioa, instalazioa, mantentze-lanak, gorabeheren kudeaketa eta azken desmuntaketa enpresa bakar batek koordinatzeak antolaketa errazten du eta zerbitzuaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzen ditu.

Era berean, zerbitzuaren osagai guztiak elkarren artean estuki lotuta daude eta jarduketen arteko koordinazio etengabea eskatzen dute. Horrenbestez, kontratua loteetan banatzeak exekuzioan deskoordinazio-arriskuak sor ditzake, erantzukizunak zehaztea zaildu eta gorabeheren ebazpena moteldu.

Ondorioz, zerbitzuaren izaera bateratua eta haren exekuzio egokia bermatzeko beharra kontuan hartuta, ez da egokitzat jotzen kontratua loteetan banatzea; aitzitik, efizienteagoa eta egokiagoa da prestazio guztiak kontratista bakar baten erantzukizunpean uztea.

3. SAILKAPEN KODEA

CPV: 31500000-1 (material de iluminación y lámparas eléctricas)
50232000-0 (servicios mantenimiento de instalaciones de alumbrado público)

4. ESLEITZEKO ETA TRAMITATZEKO PROZEDURA

CSV: 07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

Sinadurea eta datea

IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 21/09/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2026 14:11:56

EXPEDIENTE :: 2026KON_IRE_0006

Datea: 19/06/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Esleitzeko prozedura: Irekia
Tramitazioa: Arrunta
Justifikazioa: Lizitazioa egiteko prozedurarik egokiena prozedura irekia da, non pertsona edo enpresa entitate orok aurkeztu ahal izango du proposamena, eta ez dira kontratuaren baldintzak lizitatzaileekin negoziatuko. Prozedura honen bidez, pertsona edo entitate lizitatzaileen artean lehia handiagoa ziurtatuko da, eta horrek nahitaez ekarriko du zerbitzu kontratu hau kalitate/prezio erlazio hobeari esleitzea.

5. KONTRATUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Kontratu honen bidez Bermeoko Udalak urtero ematen duen zerbitzu-hornidura finkatu nahi da, beharrezkotzat eta egoki ikusten baita herrian jai giroa bultzatzea data horietan, herriko merkatal jarduera bultzatzeko asmoz.

6. BALIABIDE GABEZIA

Bermeoko Udalak ez dauka lan hauek egiteko baliabide nahikorik, ez pertsonalik ezta teknikorik ere.

Izan ere, apaingarriak hornitu behar dira eta instalazioak egiteko baliabideak ere espezifikoak dira.

Esanak esan, objetiboki, ondoriozta daiteke Bermeoko Udalak gaur egun ez dituela baliabiderik horrelako hornidura egin ahal izateko eta lotuta daukan zerbitzua emateko.

7. EPEA

Kontratuaren hasierako iraupena epea: Kontratu honen iraupena urte bikoa izango da.

Kontratuaren iraupen-/exekuzio-epea hasten den unea: Kontratua formalizatzen denetik

Luzapenak: Bai

Zenbat: Kontratuaren epea amaitu ondoren, kontratua urtero luzatu ahal izango da, beste urte batez, guztira eta gehienez lau (4) urte bete arte (2+1+1).

Kontratuaren luzapenak baldintzaturik egongo dira aurrekontu ekitaldi bakoitzean behar adina diru egoteari.

CSV: 07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 21/09/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2026 14:11:56

EXPEDIENTE :: 2026KON_IRE_0006
Datea: 19/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Justifikazioa: Urtaro egiten den ekimen denez gero, egoki ikusten da kontratuaren epea urte bikoa izatea, enpresa esleipendunak eta Bermeoko Udalak hornidura eta instalazioa egingo den ziurtasuna izan ahal izateko. Dena den, zerbitzua egokia ez dela antzemanez gero, kontratuan aurreikusitako epea, bukatzeko aukera izango genuke.

8. DATU EKONOMIKOAK

8.1 Kontratuaren balio zenbatetsia

1. LOTEA

KONTZEPTUA	BALIO ZENBATETSIA (BEZ-IK GABE)
LIZITAZIOAREN AURREKONTUA	159.683,70 €
AURREIKUSITAKO ALDAKETAK (20%)	63.873,48 €
LUZAPENAK	159.683,70 €
GUZTIRA	383.240,88 €

Kontratuaren balio zenbatetsia guztira: 383.240,88 €

8.2 Urtekoa

URTEKOA	URTEKO ZENBATEKOA (BEZ-A BARNE)
79.841,85 €	96.608,64 €

8.3 Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua

	ZENBATEKOA BEZ GABE	BEZ-A	GUZTIRA
GUZTIRA	159.683,70 €	33.533,58 €	193.217,28 €

8.3.1 Lizitaziorako oinarrizko aurrekontuaren desglosea

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
ZUZENEKO KOSTUAK	134.187,98 €
ZEHARKAKO KOSTUAK	17.444,44 €
BESTELAKO KOSTUAK	
INDUSTRIA-ONURA	8.051,28 €
ZENBATEKO PARTZIALA	159.683,70 €

CSV: 07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

Sinadurea eta datea

IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 21/09/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2026 14:11:56

EXPEDIENTE :: 2026KON_IRE_0006

Datea: 19/06/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

BEZ-A	33.533,58 €
ZENBATEKO OSOA	193.217,28 €

8.3.2 Enplegatuen soldata-kostuak eta generoaren araberako bereizketa

Zerbitzuaren kostua kalkulatzeko, erreferentzia gisa hartu da Bizkaiko Industria siderometalurgikoaren hitzarmen kolektiboa hartu da erreferentzi gisa.

Kontratuaren epean, langileria kostuak 14.760,68 € dira, honela bananduta (hitzarmen kolektiboa):

Genero-bereizketaren banaketari dagokionez, hurrengoa da aurreko eta antzeko kontratuetan oinarrituta:

GENEROA	ZENBATEKOA
EMAKUMEZKOA	%10
GIZONEZKOA	%90

8.3.3 Merkatuko prezioak

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua zehazteko, merkatuko prezioak hartu dira erreferentzia gisa, zerbitzu hori ematen duten inguruko enpresei egindako kontsulten bidez, bai eta aurreko lizitaziotik ateratako datuetatik ere.

9. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Aldaketaren portzentajea: (gehienez % 20)

Aldaketaren irismena, mugak eta izaera, bai eta hura erabiltzeko baldintzak ere (modu argi, zehatz eta erratu ezinean):

Emango diren hornidurak eta zerbitzuak ez dira aldatuko, izaera mantenduko da kontratu osoan zehar baldintza tekniko orrietan finkatutako irizpideen arabera. Beraz, kontratua aldatzen bada, zerbitzua emateko unitateekin lotuta egongo da. Izan ere, kontratuak irauten duen epean aldaketak egon daitezke horrelako instalazio kopuruari dagokionez.

Beraz, balizko aldaketak kontratuan, finkatutako %20 gainditu barik izango dira beti eta edozein kasutan instalazioen kopuruan bakarrik izango du eragina. Aldaketek ezin izango dute zerbitzua emateko erabiltzen diren baliabideetan eraginik izan.

10. PREZIO-BERRIKUSPENA

Prezioak ez dira berraztertuko.

CSV: 07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

Sinadurea eta datea

IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 21/09/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2026 14:11:56

EXPEDIENTE :: 2026KON_IRE_0006

Datea: 19/06/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

11. BERMEAK

Behin-behinekoa: Ez da eskatzen.
Behin betikoa: Esleipenaren zenbatekoaren % 5.
Osagarria: Ez da eskatzen.

12. KAUDIMENA ETA SAILKAPENA

12.1 Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa

Irizpidea: Negozioen urteko bolumena, amaitutako azken hiru negozio-bolumenik handiena duen urteari dagokiona.

Gutxieneko baldintza: Bolumen handieneko urteko negozio bolumenaren zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsiaren bat eta erdi baino handiagoa izatea, hau da, 143.715,33€.

Egiaztapena: Erantzukizuneko aitorpena aurkeztuko da, VI. eranskinaren arabera. Erantzukizuneko aitorpena honela beteko da:

a) Onartutako eta Merkataritza Erregistroan edo enpresaburuak izena eman behar duen Erregistro Ofizialean gordetako urteko kontuetan ageri diren balioak jarri behar dira. Bermeoko Udalak dagokion erregistroan sartuz egingo ditu egiaztapenak.

b) Baliozko arrazoi batengatik, enpresa lizitatzaileak ez badu urteko konturik onartu eta gordailuan utzitako azken 3 urteetatik gorako zenbatekorik (adibidez, dagokion erregistroan kontuak aurkezteko obligaziorik ez duelako edo enpresa sortu berria delako), adierazpenean arrazoia adierazi beharko du.

c) Merkataritza-erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek eta aurreko paragrafoan aipatutako baliozko arrazoia adierazi duten enpresaburuek beren kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatu beharko dute, eta, horrez gain, erantzukizuneko aitorpenaz aparte, 303 eta/edo 390 ereduak edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpenaren 200 eredua edo baliokidea aurkeztu beharko dituzte.

(Oharra: Urteko negozio bolumena merkataritzako legerian ezarritako urteko kontuen erregelamenduzko ereduetako galdu-irabazien kontuan ageri den negozio zifraren zenbateko garbia da.)

CSV: 07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

Sinadurea eta datea

IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 21/09/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2026 14:11:56

EXPEDIENTE :: 2026KON_IRE_0006

Datea: 19/06/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

12.2 Kaudimen teknikoa eta profesionala

Irizpidea: Kontratuaren xede diren zerbitzu edo lanetan esperientzia izatea.

Gutxieneko baldintza: Azken hiru urteetan gauzatze handiena izan duen urtean metatutako urteko zenbatekoa, kontratuaren batez besteko urteko ordainketaren %70 edo gorakoa izatea, hots 67.067,15€.

Egiaztapena: VII. eranskinaren arabera, kontratuaren xede diren zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, azken hiru urteetako gauzatze handieneko urteari dagokiona, zerbitzu edo lan horien zenbatekoa, datak eta hartzailea, publikoa edo pribatua, jasotzen dituena. Zerbitzu edo lan horiek organo eskudunak luzatutako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; eta hartzailea subjektu pribatua denean horrek emandako ziurtagiriaren bidez. EZ da beharrezkoa izango zerrendan agertzen diren zerbitzuen ziurtagiriak aurkeztea, Bermeoko Udala bada hartzailea.

Justifikazioa:

Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa: horiek egiaztatzeko baldintzak eta modua 87.3 artikuluan ezarritakoak dira, beraz, SPKL-k finkatutakoaren arabera gauzatuko da.

Kaudimen tekniko edo profesionala: baldintzak, zenbatekoak eta horiek frogatzeko modua 90.2 artikuluan ezarritakoekin bat datoz, beraz, eskaera araudiarekin bat dator.

12.3 Kaudimena ordezka dezakeen enpresa-sailkapena

Prestazio nagusiak	Aurrekontuaren zenbatekoa	Kategoria (773/2015 Errege Dekretua)	Taldea (1098/2001 Errege Dekretua)	Azpitaldea (1098/2001 Errege Dekretua)

Ez da aplikagarria hornidura prestazio nagusia baita.

13. BALIABIDE PERTSONAL EDO MATERIAL NAHIKOAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA

CSV: 07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

Sinadurea eta datea

IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 21/09/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2026 14:11:56

EXPEDIENTE :: 2026KON_IRE_0006

Datea: 19/06/2026

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Kaudimen teknikoa kreditatzeko lanak edota zerbitzuak emateko izango den lantaldea, materialak eta baliabide teknikoak adierazten duen aitorpena eskatzen da.

14. SUBROGAZIOA

Ez dagokio

15. AZPIKONTRATAZIOA

Pleguetan xedatutakoak eta SPKLren 215. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak. Nolanahi ere, eskaintzan lizitatzaileek azpikontratatzeko asmoa duten kontratuaren zatia adierazi beharko dute, zenbatekoa eta azpikontratisten izena edo enpresa-profila adieraziz.

16. HOBEKUNTZAK

Ez dira onartzen.

17. ESKAINTZAK BALORATZEKO ETA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Irizpide ekonomiko eta kualitatiboen arabera aukeratutako esleipen irizpideen helburua da kontratuaren beharrizanei erantzuteko behar den kalitate/prezio onena lortzea.

17.1 Automatikoki ebaluatzeko irizpideak

17.1.1 Eskaintza ekonomikoa (0-90 puntu)

Erabilitako formulazioa linealtasun-premisa nagusiarena da, eskaintza onuragarrienen eta emandako puntu kopuru handienaren artean, eta alderantziz. Eskaintza ekonomiko baten puntuazioa zehazteko, honela jokatuko da:

Beherapenik handiena lizitazio prezioaren % 5 baino handiagoa bada, puntu guztiak baja portzentajerik handienari emango zaizkio, eta gainerako eskaintzei, bajaren portzentajearen proportzioan, formula honen arabera:

$$Pi = 90 \times (Bi/Bm)$$

CSV: 07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 21/09/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2026 14:11:56

EXPEDIENTE :: 2026KON_IRE_0006
Datea: 19/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Beherapen handiena lizitazio prezioaren %5 baino handiagoa ez bada, eskaintza bakoitzak bere baja-portzentajearekiko proportzioan lortuko ditu puntuak, formula honen bidez:

$$Pi = 90 \times (Bi/5)$$

Aldagaien definizioa:

Pi = “i” lizitatzailearen puntuazioa
Bm = Gehienezko baja
Bi = “i” lizitatzailearen baja

Eskaintzak BEZik gabe baloratuko dira. Lizitazioaren prezio berdina duten eskaintzek 0 puntu jasoko dituzte.

Eskaintzak ohi baino baxuagoak izateko irizpideak:
% 20ko beherapena kontratuaren lizitazio prezioaren gainean, BEZa sartu gabe.

Justifikazioa: Kontu Auzitegiek eta OCEXek, oro har, ontzat ematen dute “zuzeneko formula lineal/proportzional zuzendua” deritzona. Zalantzarik gabe, kontratazio-formula horiek honako baldintza hauek bete behar dituztela ondorioztatu da: funtzio lineala izatea, “prezioa/baja” aldatzean proportzionaltasuna bermatzen duena “lortutako puntuazioaren” aldean, asetasun-atalaserik ez egotea, eskaintza aurkezte hutsagatik puntuaziorik ez ematea eta eskaintzen “batez bestekoari” puntuazio handiagoa ez ematea.

Proposatutako formulak funtzio lineal-proportzionala ematen du; ez da eskaintza baloratzen aurkezte hutsagatik, eta ez da asetasun-atalaserik aurreikusten, aipatutako erakundeek baztertu dituztenak baitira. % 20ko tartea zuzentzea proposatzen da, “formula proportzional-lineal zuzena” baino proportzionaltasun hobea lortzeko, batez ere, lizitatzaileek proposatutako bajak txikiak direnean. “Formula proportzional-lineal zuzena” aplikatuz gero, gerta daiteke prezioari emandako puntuazioa oso altua izatea, irizpide teknikoen eta prezio-irizpidearen arteko haztapena indargabetuz. Beste alde batetik, gerta daiteke, nahiz eta bi lizitatzailek proposatutako baja-portzentajeetan alde handirik ez egon, bakoitzari esleitutako puntuen aldea nabarmena eta neurriz kanpokoa izatea. Proposatutako zuzenketa-faktorearekin, “bajen arteko desberdintasunak” aldatzen dira, “emandako puntuazioen arteko desberdintasunak” etengabe eta modu kontrolatuan aldatzen direlako.

17.1.2 Langileen garraioa: Emisio kutsatzaileen murrizketa: 10 puntura arte

Irizpide hau instalazio honetako langileen garraioaren arabera baloratuko da. Airearen kutsadura mailan eragin txikiago daukaten ibilgailuek puntuazio handiago hartuko lukete.

CSV: 07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 21/09/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2026 14:11:56

EXPEDIENTE :: 2026KON_IRE_0006
Datea: 19/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Puntuak honela bananduko lirateke:

- Bateria elektrikoko ibilgailuak (BEV), luzatutako autonomia duen ibilgailu elektrikoa (REEV), ibilgailu elektriko hibrido entxufagarria (PHEV), erregai zelula bidezko ibilgailuak edota ibilgailu pribaturik ez erabiltzea: 10 puntu
- Gas natural konprimituaren bidez propultsatuak (GNC), gas natural likidotuaren bidezkoak (GNL) eta petrolioaren gas likidotuaren bidezkoak (GLP): 5 puntu
- Aurreko puntuetako ezaugarririk ez daukanak: 0 puntu

Aukeratutako irizpideen justifikazioan sakontzeko honako hau adierazi behar da: Irizpide nagusia prezioa da (irizpide zuzena), prezioari %90a eman zaio Udalaren egoera ekonomikoa kontutan edukita hornidurak ahalik eta prezio merkeenean eskuratzeak garrantzi handia daukalako, oreka ekonomikoa mantentze aldera.

Beste irizpidearen bidez, emisio kutsatzaileen murrizketa bultzatu gura da. Horrela, instalazio-lanak egingo dituzten beharginen garraiorako ibilgailuek erabiltzen duten erregaiaren arabera baloratuko da. Hau da, instalazioa gauzatzean garraio horrek ingurumenean izango duen eragina baloratuko da. Horrela, ingurumen kalitatearen alde airearen kutsadura mailan eragin txikiagoa daukaten ibilgailuak hobesten dira. Irizpide honi balorazioan %10a ematen zaio eta, azken puntuazioan eskaintza ekonomikoaren aldean garrantzi txikia izan arren, eskaintzen artean egon litekeen parekotasunaren aurrean erabakigarria izan daiteke.

Puntu honetan esan beharra dago Bermeoko udaletik, herri administrazioa garen heinean, klima-aldaketaren aurka eta energia-trantsizioaren aldeko hainbat ekimen burutzen ari direla. Ekintza horien artean, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legeak ezarritakoa betez, besteak beste, ibilgailu elektrikoak kargatzeko instalazioak egin dira udal instalazioetan eta beste batzuk jada, aztertuta daude, ahal denean bideratu ahal izateko. Era berean, ibilgailu elektrikoak hornitu dira eta lorezaintza zerbitzuko furgoneta biak, zein udaltzaingoaren ibilgailuak, esaterako, elektrikoak dira. Beraz, udal igurumen-politikarekin guztiz bat dator honelako irizpideak jartzea.

18. EXEKUZIO BALDINTZA BEREZIAK

18.1. Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako exekuzio klausula

CSV: 07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 21/09/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2026 14:11:56

EXPEDIENTE :: 2026KON_IRE_0006
Datea: 19/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

Kontratua gauzatzean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak, exekuzioari atxikitako emakumeen eta gizonen arteko ordainsarien berdintasuna bermatuko du.

Bermatu beharko du ere lanbide-sailkapenean, lanaldiaren iraupenean eta prestakuntzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna dagoela. Kontratuaren exekuzioari atxikitako pertsonen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko neurriak ezarriko ditu ere.

Exekuzio baldintza berezi hau betetzen dela bermatzeko, esleipendunak, kontratua exekutatzeko atxikitako emakume eta gizonen soldaten, lanbide-sailkapenen, eta lanaldien konparaketa aurkeztu beharko du, egon daitezkeen desberdintasunak modu argian zehaztuta eta justifikatuta, sexu bereizkeriarekin ez dagoela kreditatzeko.

Langile horiei emandako prestakuntzaren laburpena ere aurkeztuko da, eta egon daitezkeen desberdintasunen justifikazioa egin beharko da, berriro ere sexu bereizkeriarik ez dagoela bermatzeko.

Amaitzeko, Kontratuaren exekuzioari atxikitako pertsonen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzeko onartuta dituen neurrien zerrenda eta aplikazio kasuak aurkeztu beharko ditu.

Justifikazioa. SPKLren 116.4.c) artikuluan xedatutakoarekin bat, adierazi behar da baldintza berezi hauek aukeratu direla, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 22.1 artikuluaren agindua betetzeko, kontratatuko den giza baliabideen kudeaketa arloko alderdi nagusienetan sexu bereizkeriak ez egoteko eraginkorrena irizten delako, emakume eta gizonen berdintasuna bermatzearen ikuspuntutik.

Data eta sinadura orri oinean

CSV: 07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07EA00176CAF00W1P0X6N5G1Z2

Sinadurea eta datea
IÑIGO GONZALEZ ARIAS-ZERBITZU TEKNIKARIA - 21/09/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 21/09/2026 14:11:56

EXPEDIENTE :: 2026KON_IRE_0006
Datea: 19/06/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia